

BATERALABS-EN BURUNTZALDEKO ESQUALDEKO 1. SAIOAREN AKTA

Data: 2026ko martxoaren 16a (osteguna)

Lekua: Antonio Mercero Espazioa, Lasarte-Oria, Gipuzkoa

1. Ekitaldiaren helburua

Ekitaldiaren helburua **Buruntzaldean** herritarren laborategia hastea izan zen, lurraldeko klima-erronkak identifikatzeko eta gizarte-eragileen, herritarren eta erakundeetako ordezkarien ekarpenak jasotzeko.

Saio honek **Klima aldaketari eta horrek eskualdean duen eraginari buruzko informazioa** emateko, Buruntzaldeko eskualdeko elkarte eta herritarren ordezkarien talde bat sortzeko eta bigarren saioan landuko diren erronkak ateratzeko balio izan zuen. Hori guztia herritar eta politikariekin zuzenduta dago: hainbat udalerrri eta eskualde-agentzietako ordezkari publikoekin, auzo-elkarteekin, elkarte sektorialekin eta eskualdeko eragileekin.

2. Ekitaldiaren garapena

2.1 Blokeen garapena

Jarraian, ekitaldiaren blokeak, esku hartzeko benetako denborak eta arduradunak zehazten dira:

1. Ongi etorri instituzionala (5 min)

- **Arduraduna:** Agustín Valdivia, Lasarte-Oriako alkatea eta José Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun diputatua.
- **Deskribapena:** Lasarte-Oriako Udalak, Naturklimak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren partetik irekiera eta ongietorri hitzak bertaratuei. Proiektuak herritarren benetako partaidetzarako foro gisa duen garrantzia nabarmendu zuen, baita klima-aldaketak eguneroko bizitzan duen eragin zuzena eta Buruntzaldeko eskualdean izan dezakeen eragina ere. Eskualde bakoitzera egokitutako politiken beharra

azpimarratu zuen, oinarri zientifikoarekin eta herritarren eta administrazioen arteko lankidetzarekin.

2. Eskualdeko datuak eta informazioa aurkeztea (25 min)

- **Arduraduna:** Xabier Esteban, Naturklimaren zuzendaria, Dorleta Oruetxeberria, Naturklima Behatokiaren koordinatzailea eta Mónica Pedreira, Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko zuzendaria.
- **Deskribapena:** Klima-aldaketa propioak Buruntzaldean duen eraginari buruzko datuak eta informazio zientifikoa azaltzea.

3. Parte-hartze prozesuaren aurkezpena (10min)

- **Arduraduna:** Xabi Murua, Osoigoko proiektuen arduraduna.
- **Deskribapena:** Parte-hartze prozesuaren azalpena, hiru saio dituela adieraziz: klima-erronkak identifikatzea, proposamenak egitea eta amaierako proiektua aurkeztea. Saioaren dinamikaren azalpen zehatza: erronkak identifikatzeko erabiliko liratekeen helburu espezifikoak eta dinamikak. Ordezkarri publikoen eta eskualdeko agentzien parte-hartze aktiboaren garrantzia nabarmendu zen, prozesuaren ordezkarritasuna eta eraginkortasuna bermatzeko eta Bateralabs.eus-en online parte hartzeko aukera bermatzeko.

4. Parte-hartze dinamika (40 min)

Dinamika lan-mahaien bidez garatu zen. Mahai horietan, parte-hartzaileek lurraldeko klima-erronkak identifikatu zituzten, post its -ak erabiliz eta taldean eztabaidatuz. Ondoren, mahai bakoitzak identifikatutako ideia nagusiak partekatu ziren plenarioan. Herritarren laborategiaren saioan, taldeetan lan egin zen Buruntzaldeko jasangarritasunarekin lotutako lehentasunezko arazoak eta erronkak identifikatzeko, arreta berezia jarriz mugikortasunari, hondakinen kudeaketari, espazio naturalei, energiari eta klima-aldaketarako egokitzeari.

Horretarako, eskualdeko mapa bat landu zen, eta mapa horren gainean tokiko erronkak identifikatu eta kokatu ziren. Jarraian, lan-mahai bakoitzak egindako ekarpen nagusiak jasotzen dira.

1. lan-mahaia / Bozeramailea: Juan Andres Rebollo

Taldeak modu sintetikoan adierazi zuen eskualdeko erronka nagusietako bat udalerrien arteko mugikortasuna dela. Ildo horretan, bereziki azpimarratu zen Lasarte–Zubieta–Usurbil arteko konektibitatea hobetzeko beharra. Halaber, nabarmendu zen garraio publikoaren abonamenduak diruz laguntzen jarraitzeko beharra, baita dauden zerbitzuen ordutegiak eta maiztasunak hobetzekoa ere. Era berean, bidegorriak hobetzeko premia aipatu zen.


Basogintzari dagokionez, ibaien garbitasunarekiko kezka adierazi zen, eta basoetako suhesiak egoera onean mantentzearen beharra ere bai. Horrez gain, Usurbilen beroari aurre egiteko leku faltarekiko kezka agertu zen. Proposamen gisa, igerilekuaren inguruan egoteko gune bat eta Santu-Enea auzoan ur-jolasen parke bat sortzea planteatu zen.

Halaber, etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko beharra azpimarratu zen, eta, oro har, ingurumen-kudeaketa hobea eta energia-aurrezpena sustatuko duten produktuen ikerketa bultzatzea.

Azkenik, Usurbil inguruko Saria hezegunearen egoera aipatu zen; nahiz eta babestuta egon, esku-hartze eta babes aktiboagoa behar duela adierazi zen.

Bildutako oharra:

- Udalerrien arteko garraio publikoaren ordutegiak eta maiztasunak hobetzea, baita abonamenduen dirulaguntzak ere.
- Lasarte–Zubieta–Usurbil arteko konektibitatea hobetzea.
- Bidegorri sarea hobetzea.
- Ibaien eta ibaiertzen garbiketa.
- Basoetako suhesien mantenu lanak bermatzea.
- Beroari aurre egiteko espazioak sortzea.
- Etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa hobetzea.
- Trantsizio ekologikoa lagunduko duten produktuen ikerketa.
- Usurbil inguruko Saria hezegunearen esku-hartzea eta babes handiagoa.



2. lan-mahaia / Bozeramailea: Aritz Alkain


Mahai honek ere mugikortasuna identifikatu zuen eskualdeko erronka nagusietako bat bezala. Garraio publikoa diruz laguntzen jarraitzeko eta ibilbideak zabaltzeko beharra azpimarratu zuten, udalerrien arteko konektibitatea azkarragoa izan dadin. Era berean, bidegorri sare zabalago bat sortzea proposatu zen. Horrez gain, ibilgailu elektrikoentzako laguntzak hobetzea planteatu zen, bereziki karga-sistemak instalatzeko. Azkenik, Lasarte-Oriatik Donostiara bizikletaz edo oinez joateko aukera erraztea oso onuragarria litzatekeela adierazi zen.

Etxebizitza-mailako trantsizio energetikoari dagokionez, energia-aurrezpenerako obretarako dirulaguntza gehiago behar direla azpimarratu zuten. Basogintzan, ibai-arroen eta mendien garbiketa hobetzeko beharra aipatu zen, betiere tokiko biodibertsitatea errespetatuz. Halaber, beroari aurre egiteko espazio publikoetan berdeguneak sortzea beharrezkoa dela ikusi zuten, espazio horietan klimatizazio faltaren ondorioz.

Amaitzeko, hondakinen kudeaketari buruz hitz egin zuten, tokian tokiko arazoak identifikatuz. Zenbait herritan kontainer faltak eragiten du, adibidez, Usurbilgo eta Hernaniko herritarrek Lasarte-Oriara joan behar izatea; eta txartelik ez dutenez kontainerrak irekitzeko, hondakinak lurrean uzten dituzte.

Bildutako oharrak:

- Garraio publikoaren ibilbideak zabaldu eta dirulaguntzak mantendu, konektibitatea eta abiadura hobetzeko.
- Bidegorri sareak sortzea.
- Ibilgailu elektrikoentzako karga-sistemarako dirulaguntzen falta.
- Etxebizitza-parkean energia-aurrezpenerako obretarako dirulaguntza gehiago.
- Basogintza-kudeaketa eta ibai-arroen garbiketa hobetzea, biodibertsitatea errespetatuz.
- Espazio publikoetan beroari aurre egiteko klimatizazio falta.
- Hernani eta Usurbil bezalako herrietan kontainer falta, eta ondoriozko hondakin isurketak lurrean.



3. lan-mahaia / Bozeramailea: Ainhoa Zuazu

Taldeak lehenik etxebizitzan trantsizio ekologikoa landu zuen. Eraikin publikoetako teilatuetan eguzki-plakak instalatzea proposatu zuten, energia-autonomia handitzeko. Halaber, komunitate energetikoak diruz laguntzea beharrezkotzat jo zuten. Uraren kudeaketari dagokionez, gero eta lehorte eta bero-bolada gehiago daudela azpimarratu zuten, eta etorkizunean hornidura-eteteak saihesteko, uraren kudeaketa-plana hobetzea premiazkoa dela. Horrez gain, errepideek sortzen duten kutsadura murrizteko beharra aipatu zen.


Mugikortasunean, udalerrien arteko garraio publikoa sustatzea, ordutegiak zabalduz, eta bizikleta-bideak sortzea azpimarratu zuten. Bereziki, industrialdeetara iritsiko diren bidegorriak sortzea beharrezkoa dela adierazi zuten.

Birziklapenari dagokionez, herritarren kontzientziarioa indartu behar dela esan zuten, eta pizgarriak erabiliz tasa hobeak lor daitezkeela proposatu zuten.

Azkenik, ibaien gainezkatzeek biodibertsitatean duten eragina salatu zuten.

Bildutako oharrak:

- Eraikin publikoetan eguzki-plakak instalatzea.
- Komunitate energetikoentzako dirulaguntzak.
- Uraren kudeaketa hobetzea.
- Errepideetako kutsadura murriztea.
- Garraio publikoaren maiztasuna handitzea.
- Industrialdeetaraino iritsiko diren bidegorriak.
- Aisialdi guneen masifikazioa.
- Ibaien gainezkatzeek biodibertsitatean duten eragina.



4. lan-mahaia / Bozeramailea: Agustin Valdivia

Taldeak etxebizitzaren trantsizio energetikoaren gaiarekin hasi zuen hitzartzea, eta adierazi zuten etxebizitza-parke zaharrena hobetzea beharrezkoa dela; horretarako dirulaguntzak handitzeak prozesua eraginkorragoa izan dadin lagundu dezakeela nabarmendu zuten. Halaber, gas-galdaretatik aerotermia sistemetara edo komunitate energetikoetara igarotzea diruz laguntzea baloratzea eskatu zuten, horrek aurrezpen ekonomikoa eta ingurumen-inpaktu txikiagoa ekarriko lituzkeelako.

Mugikortasunari dagokionez, azpimarratu zuten eskualdeko herriak probintziako hiriburuarekin ondo konektatuta dauden arren, ez dagoela lotura egokirik herrien artean. Azaldu zuten Urumea arroan Renfe dagoela eta Oria arroan Euskotren (topoa), eta bi sareak Andoainen lotzeak udalerrien arteko konektibitatea asko hobetuko lukeela. Halaber, autobus eta tren zerbitzuen maiztasunak hobetzeko beharra aipatu zuten. Horrez gain, herrien arteko lotura zuzenak sortzea proposatu zuten, mugikortasuna azkarragoa eta erakargarriagoa izan dadin. Testuinguru horretan, herritarrak garraio publikoa gehiago erabiltzera


kontzientziatzeko beharra azpimarratu zuten. Era berean, bidegorri sarea hobetzeko premia adierazi zuten, bereziki herrien eta industrialdeen artean.

Basogintzari dagokionez, ibaien ertzen mantentzea hobetzeko beharra aipatu zuten, bereziki eremu urbanoetan, han pilatzen baita kutsadura gehiena. Arazo zehatzetan sakonduz, Buruntza mendiko bide-sarearen mantentzea hobetzea beharrezkotzat jo zuten. Halaber, flora eta fauna inbaditzaileek sortzen duten arazoaz ohartarazi zuten, eta tokiko flora sustatzea eta espezie inbaditzaileen kontrola indartzea proposatu zuten (adibidez, tenperatura altuekin ugaritzen den eltxo tigre).

Azkenik, egoera kaltegarrien aurrean herritarrentzako jarduteko protokoloen falta azpimarratu zuten, eta egoera desberdinetarako prest egoteko planak sortzea proposatu zuten. Era berean, babes klimatiko guneak sortzeko beharra adierazi zuten.

Bildutako oharrak:

- Etxebizitza-parke zaharra hobetzea.
- Trantsizio energetikoa diruz laguntzea (gas-galdaretatik aerotermiarako edo komunitate energetikoetarako aldaketa).
- Garraio publikoan udalerrien arteko konektibitatea hobetzea.
 - Autobus eta tren maiztasunak handitzea, eta herrien arteko lotura zuzenak sortzea.
 - Andoainen Renfe eta Euskotren sareak konektatzea.
 - Bidegorri sarea hobetzea, bereziki herrien eta industrialdeen artean.
- Ibaien ertzen mantentzea hobetzea, bereziki eremu urbanoetan.
- Buruntza mendiko bide-sarearen mantentzea hobetzea.
- Tokiko flora eta fauna babestea espezie inbaditzaileen aurrean.
- Egoera kaltegarrien aurrean herritarrentzako jarduteko protokoloen falta.




5. taldea / Bozeramailea: David Mateos

Taldeak mugikortasunari buruzko kezka adieraziz hasi zuen saioa. Azaldu zuten hiriburuan aparkatzeko zailtasunak direla eta, jende askok Buruntzaldeko udalerrietan aparkatzen duela eta handik garraio publikoan mugitzen dela; horren ondorioz, herriak hiriburuko turismoaren aparkaleku bihurtzen ari direla salatu zuten. Garraioari dagokionez, Andoain Euskotren sarearekin konektatzearen onurak ere aipatu zituzten.

Amaitzeko, akuiferoen inguruan hondakin-lurrak pilatzeko azken esku-hartzeak sortzen duten kezkaz hitz egin zuten, uraren kutsadura eta biodibertsitatearen arriskua eragiten baitute, eta ondorioz baliabide naturalen pobretze orokorra. Adibide zehatz gisa, Orona inguruan aurreikusitako esku-hartzeak aipatu zituzten. Halaber, hondakin gutxiago sortzeko beharra azpimarratu zuten.

Bildutako oharra:

- Buruntzaldeko herriak hiriburuko aparkaleku bihurtzen ari dira.
- Andoain Euskotren sarearekin konektatzea.
- Akuiferoen inguruan hondakin-lurrak pilatzea, biodibertsitatea eta baliabide naturalak arriskuan jarritz.
- Orona inguruan aurreikusitako esku-hartzeak.



ERRONKEN LABURPENA ETA TALDEKATZEA

Laburpen gisa, lan-mahaiek identifikatutako ekarpen eta erronkak honela multzoka daitezke:

1. Mugikortasun jasangarria eta konektibitatea

- Udalerrien arteko konektibitatea hobetzea.
- Garraio publikoaren maiztasun eta ordutegi eskasak.
- Herrien arteko lotura zuzenen falta.
- Udalerriak Donostiako aparkaleku bihurtzea.
- Autoarekiko mendekotasuna, bereziki industrialdeetara joateko.
- Dirulaguntzak mantendu/zabaltu eta garraio publikoa sustatzea.
- Renfe-Euskotren lotura Andoainen.
- Bidegorri sarea hobetzea eta zabaltzea (herrien eta industrialdeen artean).
- Ibilgailu elektrikoentzako laguntzak.
- Aisialdi guneen masifikazioa.

2. Hondakinen kudeaketa

- Azpiegitura falta udalerrri batzuetan.
- Kontainerren txartelekin arazoak eta ondoriozko kanpo-isurketak.
- Hondakin gehiegizko sorrera.
- Birziklapenerako pizgarriak.

3. Ura eta ibai-ekosistemak

- Ibaien eta akuiferoen kutsadura.
- Gainekatzeez biodibertsitatean duten eragina.
- Hezeguneetan esku hartzea (adibidez, Saria), babestuta egon arren.
- Ibaiertzen mantentze eta garbiketa hobetzea.
- Uraren kudeaketaren plangintza hobetzea.
- Biodibertsitatearen gaineko inpaktuak arintzeko neurriak.

4. Natura hiritarra eta egokitzapen klimatikoa

- Beroari aurre egiteko espazio falta eta espazio publikoen klimatizazio eskasa.
- Babes klimatiko guneak sortzeko beharra (berdeguneak, itzal guneak, ur-parkeak...).

5. Basoak eta natura-guneak

- Mendien, bideen eta suhesien mantentze eskasa.
- Buruntza mendiko bideen mantentze falta.
- Tokiko flora eta fauna babestea espezie inbaditzaileen aurrean.

6. Energia eta etxebizitza-mailako trantsizio energetikoa

- Etxebizitza zaharren eraginkortasun energetiko baxua.
- Trantsizio energetikorako laguntza eta dirulaguntza falta.
- Komunitate energetikoak sustatzeko beharra.
- Gas-galdaretatik arotermiarako aldaketa.

- Eraikin publikoetan eguzki-plaken instalazioa.

7. Informazioa, hezkuntza eta sentsibilizazioa

- Ingurumen-hezkuntza eta herritarren sentsibilizazioa indartzea, bereziki:
 - Garraio publikoaren erabileran.
 - Birziklapen sistemetan.

8. Gobernantza eta koordinazioa

- Egoera kaltegarrien aurrean herritarrentzako jarduteko protokolo zehatzen falta.

3. Asistentzia eta ordezkari-tza instituzionala

Jardunaldian guztira 33 lagunek parte hartu zuten, Gipuzkoako eskualde-agentzietako eta udalerrietako ordezkarien artean, lurralde-ordezkari-tza bermatzeko moduan banatuta:

- Eskualde-agentzietako ordezkariak: 1 ordezkari.
- Eskualde-elkarteetako ordezkariak: 19 ordezkari.
- Erakunde publikoetako ordezkariak: 6 ordezkari.